



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abenduaren 15a

143. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko (2. or.).
- Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila). (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (32. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak proposamen bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoko zenbait lanpostu huts deitu ahal izateko, hain zuzen ere, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako salbuespenezko kasuetan daudenak. Proposamen hori egiten da Legebiltzarreko Mahaiak 2022ko maiatzaren 30eko erabakiaren bidez egindako eskaera betez, eta aipatu 20/2021 Foru Legean ezarritako epeei jarraikiz. Espedientea Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzaitzak egindako txostenez ere hornitu da.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoaren oinarriak onestea, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.

2. Agintzea deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2022ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.

Deialdi honen oinarriak honakoak dira:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honek xede du lehiaketa-sistemaren bidez betetzea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2022ko maiatzaren 30eko Erabakian eta Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezartzen denari jarraituz, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionario-araubideko bi legelari lanpostu huts.

1.2. Oposizio-lehiaketa aurrera eramanen da 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta horrek gerora izandako aldaketetan xedatuari jarraikiz; eta, osagarri modura, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta, hori garatu eta betearazteko, Sarrera-erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan xedatuarekin bat.

1.3. Deialdi hau dela medio izendaturik suertatzen diren izangaiek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, legelarien kidegoetakoentzat ezarritako eginkizunak beteko dituzte eta horien eskubide eta betebeharrak edukiko dituzte. Haien eginkizunak dira Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko Erregelamenduko 14. artikulua ezartzen dituztenak: besteak beste, Parlamentuko organoentzako aholkularitza juridiko eta tekniko; ebazpenak, txostenak, irizpenak eta aktak idaztea; Nafarroako Parlamentua ordeztu eta defendatzea epai-organoen eta Konstituzio

Auzitegiaren aurrean; eta goi mailako azterlanak eta proposamenak egiteko eginkizuna.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuaren nominako eta plantillako funtzionarioaren izaera emanen die hautatuei, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Zerbitzuak arduraldi eskusiboko araubidean emanen ditu.

1.5. Lanpostuak A mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indarduneari zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.6. Izendatuak suertatzen diren pertsonak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuak izanen dira eta alta emanen zaie bertan, araubide horren estalduraren arabera, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta horren osagarri diren xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun- eta gizarte-laguntzaren araubidean jadanik afiliatuta badaude, ezen kasu horretan aukera izanen dute araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzari afiliatzeko.

1.7. Lanaldia Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabakiko du, eta edozein unetan aldatu ahalko da, zerbitzuaren premien arabera.

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta lanpostua betetzeko prozedurak irauten duen denbora guztian, harik eta lanpostua betetzeko unera arte, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiar nazionalitatea, Europar Batasuneko kide den beste estatu batekoa edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitakoak izanik langile-zirkulazio askea aurreikusten duten nazioarteko itunen aplikazio-esparruan dagoen estatu batekoa edukitzea.

Espainiarren eta Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako herritarren edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte hartzen ahalko dute, baldin eta ez badaude zuzenbidez berezita. Orobat, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez berezita ez daudenean, hogeita bat urte baino adin txikiagoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Zuzenbideko gradu edo lizentziatura titulu ofizialaren jabe izatea, edo eskaerak aurkezteko epea betetzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Kasuan-kasuan bete beharrekoak diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

e) Ez egotea kasuko eginkizun publikoetan aritzeko ezgaituta ez eta eginkizun gabetuta ere, eta administrazio publiko baten zerbitzuetik berezia ez izatea, ez eta diziplinazko kaleratzez iraitzia ere.

2.2. Lanposturako izendatua izateko proposatua den izangaiek deialdi honetako 7. oinarrian ezarritako epe eta eran frogatu beharko ditu baldintza horiek.

3. oinarria. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzendu beharko zaizkie, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo administrazio-araudi indardunaren arabera beste erregistro batzuetan, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztuz gero, eskabidea eta haren kopia bat aurkeztu beharko dira. Kopia zigilatuta eta interesdunari itzuliko zaio, izen-ematearen ziurtagiri gisa. Nafarroako Parlamentuaren Erregistroaren ordutegia honako hau da: asteleheneetik ostegunera, 09:00etatik 17:30era; eta ostiraletan, 09:00etatik 14:30era. Abenduaren 27tik urtarrilaren 5era, biak barne, ordutegia honako hau izanen da: 9:00etatik 14:00era.

3.2. Eskabidea posta-bulego batean aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azal ireki batekin eginen da, kasuko posta-langileak eskabideari data eta zigilua jar diezazkion, ziurtapena egin aurretik.

3.3. Eskabidea I. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izanen da, eta interesdunentzat eskuragarri egonen da Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean eta Nafarroako Parlamentuaren webguneko (www.parlamentodenavarra.es) "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia" izeneko atalean.

3.4. Parte-hartze eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituztela eskabide-aurkezpenarako zehaztutako epea amaitzen den egunean.

3.5. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten fotokopia aurkeztu beharko dute.

3.6. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte eta, zein den kasua, 2.1.a) oinarrian nazionalitateari eta ahaidetasunari buruz eskatzen diren baldintzena ere bai. Halaber aurkeztu beharko dute zinpeko edo hitzemandeko aitortpena, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikorako sarbidea eragozten dien inolako diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez izatearena.

Desgaitasun aitortua duten pertsonak horren berri eman beharko dute eskabidean, eta zuzenbidezko desgaitu-izaeraren frogagiria gehitu, horretarako atxikiz organo eskudunak jaulkitako dokumentuaren kopia bat, merezimendu-balorazioko baremoan jasotako zuzentze-faktorea aplikatu ahal izan dakien. Era berean, ezgaitasuna aitortuta duten izangaiek zilegi izanzen dute denbora- edo baliabide-egokitzapenak eskatzea, baldin eta beharrezkoak badira ariketaren bat egiteko. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute hori, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute zer ezgaitasun daukaten eta zein diren eskaturiko egokitzapenak.

3.7. Halaber, eskabideari nahitaez atxikiko zaio alegaturiko merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskineko ereduaren arabera, merezimendu horien frogagiriekin batera.

Izendapenerako proposatuak diren izangaiek merezimendu horien frogagiriaren jatorrizkoak edo kopia autentifikatuak aurkeztu beharko dituzte, 7.3 oinarrian adierazitako beste dokumentuekin batera. Dokumentu horien faltsutasunak, edo aipatu dokumentuak bat ez etortzeak aurretiaz aurkeztuak eta lehiaketa-fasean baloratuak izan direnekin, ondorio gisa ekarriko du haien aldeko izendapen-proposamenak automatikoki indarra galtzea eta kasuko izangaia deialditik kanporatua izatea.

4. oinarria. Izangaien onarpena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Izangai baz-

terturik ez badago, zilegi izanzen da zuzenean onestea behin betiko zerrenda. Halaber argitaratuko da Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunean, "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia" izeneko atalean.

4.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar ramunetik aurrerako hamar egun balioduneko epean, interesdunek zilegi izanzen dute egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztea zerrenda horren aurka eta haiek egindako balizko akatsak zuzentzea.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzirik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, zeina argitaratuko baita Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunearan "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia" atalean.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauek dira lehiaketa-oposizioa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Unai Hualde Iglesias jauna, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.

Ordezkoa: Inmaculada Jurío Macaya andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Andoni Iturbe March jauna, Eusko Legebiltzarreko legegari nagusia.

Ordezkoa: Montserrat Auzmendi del Solar andrea, Eusko Legebiltzarreko legegaria.

Epaimahaikidea: Carmen Agüeras Angulo andrea, Aragoiko Gorteetako legegari nagusia.

Ordezkoa: Jorge Apellániz Barrio jauna, Errioxako Parlamentuko legegari nagusia

jauna, Epaimahakidea: Langileen Batzordeak proposatuta hautatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta hautatu beharrekoa.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legegari nagusia.

Ordezkoa: José Contreras López jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia.

5.2. Baldin eta, abstentziorako eta errefuserako arrazoi zuzenbidezkoak aplikatuz, epaimahaia-

ren osaera aldatuko balitz, aldaketa hori publikoki jakinaraziko litzateke izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda jendaurrean jarzearekin batera.

5.3. Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak proposatutako ordezkarien hautaketa eginen da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

5.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, eta jarduterik ere ez du izanen, gutxienez bere kideen gehiengo osoa bertaratu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliiodunak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordekoek bertaratuta egon beharko dute.

5.5. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeaz eta aplikatzeaz sor daitezkeen ebazkizun guztiak.

5.6. Epaimahaiko kideak behartuta egonen dira esku hartzetik abstenitu eta organo dei-egileari horren berri ematera, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio-kausetakoren bat beraiei aplikatzekoa bada. Halaber, izangaiek zilegi dute aipatu kasetakoren bat aplikatzekoa zaien epaimahaikideak errekusatzea.

6. oinarria. Oposizio-lehiaketaren nondik norakoa.

6.1. Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu, lehenik lehiaketaldia izanen da, eta ondoren oposizioaldia.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian 40 puntu eskuratzen ahalko dira gehienez. Fase hori 2023ko martxoaren 31 baino lehen ebatziko da eta ez da izanen izangaia baztertzekoa. Alegatu eta frogaturiko merezimenduak ondoko baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak:

a) Lanbide-esperientzia: deialdi honen argitalpen-datarate Nafarroako Parlamentuan eta beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak 28 puntura bitartean baloratuko dira, puntuazio honen arabera:

a.1) Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean Nafarroako Parlamentuan emandako zerbitzuak: 3 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.2) Lortu nahi den lanpostuaz bestelakoak diren Nafarroako Parlamentuko lanpostuetan emandako zerbitzuak: 1,5 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.3) Administrazio publikoetan A mailako edo taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, lanpostu horietarako Zuzenbideko lizentziadunaren edo gradudunaren titulua eskatu bada: 0,75 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

Urte-kopurua ez baldin bada kopuru oso bat, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagoen puntuazioa esleituko da.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, horren araberrako zatia deskontatuko da.

Ez dira baloratuko aldi berean emandako zerbitzuak, salbu eta lanaldi partzialean emandakoak badira.

Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran edo jarduneko egoera berezian emandako aldiak zenbatuko dira benetan jardundako lanpostuan emandako zerbitzu gisa.

Izangaia zerbitzu berezietako egoeran beste arrazoi batzuegatik egon bada, edo eszedentzia berezian egon bada, edo burutza batean, horietan igarotako denbora zenbatuko da egoera horietara iritsi zen unean zeukan lanpostuan emandako zerbitzu gisa.

Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Kasu bakoitzean, haietatik handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk (gehienez ere, 12 puntu):

b.1) Nafarroako Parlamentuko funtzionario-araubideko legelari posturako oposizio edo oposizio-lehiaketa bat posturik lortu gabe gainditzeagatik: 3 puntu lanposturik gabe gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Lortu nahi den postuaz bestelakoa den Nafarroako Parlamentuko funtzionario-araubideko lanpostu baterako oposizio edo oposizio-lehiaketa bat gainditzeagatik: 2 puntu, gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.3) Deialdi honetan betekizun gisa exijitzen diren goi mailako ikasketez bestelako lizentzia edo graduiko unibertsitate-titulu ofizial bakoitzeko edo deialdi honetan parte hartzeko ezarritako goi mailako ikasketei buruzko doktoretzako proba bakoitzeko: 1,5 puntu.

b.4) Master unibertsitarioko titulazio ofizial bakoitzeko: 0,75 puntu.

b.5) Euskara jakitea: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukitzeagatik 2 puntu emanen

dira. Horrelako titulu edo ziurtagiririk eduki ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiria edukitzea gehieneko puntuazioaren 1/5ekin baloratuko da; A2 mailaren baliokidea edukitzea, 2/5ekin; B1 mailaren baliokidea edukitzea, 3/5ekin; eta B2 maila osoa edukitzea, 4/5ekin. Erdietsitako maila gorenaren titulua bakarrik baloratuko da.

b.6) Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea, Europar Batasuneko lan-hizkuntzak diren aldetik: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukitzeagatik 1,5 puntu emanen dira. Horrelako titulu edo ziurtagiririk eduki ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiria edukitzea gehieneko puntuazioaren 1/5ekin baloratuko da; A2 mailaren baliokidea edukitzea, 2/5ekin; B1 mailaren baliokidea edukitzea, 3/5ekin; eta B2 maila osoa edukitzea, 4/5ekin. Hizkuntza bakoitzeko, erdietsitako maila gorenaren titulua bakarrik baloratuko da.

Behin merezimendu-balorazioa aurreko a) eta b) apartatuek ezarritakoari jarraikiz eginda, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua frogatzen duten pertsonak lorturiko puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio guztira, zuzenketa-faktore gisa.

6.2.2. Izangaiek, beren eskabidearekin batera, alegaturiko merezimenduen zerrenda aurkeztu beharko dute, II. eranskineko ereduaren arabera. Epaimahaiak baloratu ahal izan ditzan, nahitaezkoa izanen da dokumentu horri gehitzea merezimendu bakoitzari buruzko frogagiri hauek:

a) Lanbide-esperientzia: administrazio publiko-etan emandako zerbitzuak kasuko administrazio publikoko organo arduradunak jaulkitako ziurtagirien bitartez frogatu beharko dira, non xeheki adierazi beharko baitira emandako zerbitzuak, berriaz jasota lanpostuak bertako plantilla organikoaren arabera duen izena, mailaketa, zein zentro edo unitatetan emandako zerbitzualdia den, zerbitzualdi bakoitzaren hasiera- eta amaiera-egunak, bai eta pertinetza den beste edozein datu ere.

b) Bestelako merezimenduak: izangaiek oposizioa edo lehiaketa-oposizioa gainditu izana frogatuko da horren berri ematen duten administrazio-ebazpenaren, argitalpen ofizialaren edo organo eskudunak jaulkitako ziurtagiri ofizialaren fotokopia bidez frogatuko da. Titulazioa frogatuko da horretarako aurkeztuz titulu ofizialaren fotokopia,

edo eskabide-aurkezpenaren epea bukatzen den egunean hori lortzeko eskubideak ordainduta egoteari buruzko gordekinarena. Hizkuntzen jakitea frogatuko da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera titulu edo ziurtagiria aurkeztuz; hots, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendaturik daudenetako bat, edo ofizialki baliokidetzat aitorturiko titulu bat.

Merezimenduen balorazioari dagokionez, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ez egun horren ondoren lortutakoak.

Agiriek baremoaren aplikaziorako beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute. Ez da kontuan hartuko frogatu gabeko merezimendurik, ez eta baremoan jasota ez dagoenik ere. Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiak modu arrazoituan baloratuko ditu izangai bakoitzak betetzen dituela irizten duen merezimenduak, baremoko atal bakoitzari jarraikiz, eta ezin izanen du ezein kasutan aintzat hartu alegatu ez den edo agiri bidez frogatu ez den merezimendurik. Era berean, ez du zilegi izanen atal bakoitzagatik puntuazio handiagorik ematea baremoan aipatzen dena baino.

Aurkezturiko merezimenduen frogagiriak aztertzetik ondorioztatuko balitz izangaietakoren batek ez daukala halako merezimendurik, deskontatu egingen da aipatu merezimenduei emandako puntuazioa, ezertan galarazi gabe hari faltutasunagatik erator lekizkiokoen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

6.2.3. Lehiaketa-fasea amaituta, epaimahaiak izangai bakoitzaren merezimenduen balorazioaren emaitza jasotzen duen zerrenda argitaratuko du Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean, izangaien balizko erreklamazioei begira, bost egun baliodunez.

Erreklamaziorik egonez gero, epaimahaiak ebatziko ditu, horren ondorioz prozedura eten gabe.

6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Oposizioaldia 2023ko apiriletik aurrera hasiko da, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean gutxienez ere 10 egun natural lehenago iragarriko diren tokian, egunean eta orduan.

6.3.2. Oposizioaldian bi ariketa eginen dira, bata teorikoa eta bestea praktikoa, eta bakoitzaren barnean bi proba eginen dira. Guztira 60 puntu eskuratu ahalko dira. Lau probak baztergarririk izanen dira. Probak gairik gaitzeko, puntu erdiak lortu behar dira haietariko bakoitzean. Halaber, bazterturik geratuko da lehen eta bigarren ariketetako edozein gai edo kasu praktikotan, hurrenez hurren, 0 puntu kalifikazioa ematen zaion izangaia.

6.3.3. Oposizioaldiko ariketa teorikoa eginen da lehendabizi. Gehienez ere 30 puntu balorazioa lortuko da, eta egun ezberdinetan, epaimahaiak ezarritako datetan, izanen diren bi proba egin beharko dira:

a) Lehen proba teorikoa: gehienez ere 4 orduan, idatziz garatu beharko dira Zuzenbide Konstituzionaleko, Europar Batasuneko Zuzenbideko eta Hauteskunde-zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 1. multzoa) eta Zuzenbide Parlamentarioko gai bat (III. eranskineko 2. multzoa). Gaiak zozketa bidez hautatuko dira. Proba hori gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, eta gai bakoitzarengatik gehienez ere 7,5 puntu emanen dira. Proba gairik gaitzeko, berriz, gutxienez ere 7,5 puntu lortu beharko dira.

b) Bigarren proba teorikoa: gehienez ere 4 orduan, idatziz garatu beharko dira Zuzenbide Administratiboko eta Prozesaleko gai bat (III. eranskineko 3. multzoa) eta Nafarroako Zuzenbide Publikoko, Zuzenbide Finantzario eta Tributarioko, eta Lan Zuzenbideko, Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko eta Lan arloko Zuzenbide Prozesaleko gai bat (III. eranskineko 4. multzoa). Gaiak zozketa bidez hautatuko dira. Proba hori gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, eta gai bakoitzarengatik gehienez ere 7,5 puntu emanen dira. Proba gairik gaitzeko, berriz, gutxienez ere 7,5 puntu lortu beharko dira.

Bi proba teorikoak idatziz eginen dira. Proba bakoitza bukatu ondoren, izangaiek kartazal batean sartuko dituzte idatziak dauzkaten folioak. Kartazal horren hegalean interesdunak eta epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute, eta kartazala idazkariak gordeko du.

Epaimahaiak adierazitako egunean, izangaiek proben irakurketa publikoa eginen dute. Hurrenkeraren alfabetikoaren arabera, izangaiek beraiek izenpeturiko gutun-azalak irekiko dituzte epaimahaiaren aurrean, eta jendaurrean irakurriko dute ariketa. Epaimahaiakideek, probak irakurri ondoren, argibideak edo azalpen zabalagoak eskatzen ahalko dizkiete izangaiei beren ariketen edukiaz. Ariketak jendaurrean irakurri ondoren, epaima-

haiak ariketak kalifikatuko ditu, horiek aztertu eta analizatu ostean.

6.3.4. Ariketa teorikoa amaiturik, ariketa praktikoa eginen da. Gehienez ere 30 puntu balorazioa lortuko da, eta egun ezberdinetan, epaimahaiak ezarritako datetan, izanen diren bi proba egin beharko dira:

a) Lehen proba: irizpen edo txosten juridiko bat garatu beharko da idatziz, gehienez ere bost orduan, Nafarroako Parlamentuko legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatutako kasu bati edo kasu batzuei buruz.

b) Bigarren proba: gehienez ere 5 orduan, azterlan, proposamen, irizpen edo iruzkin juridiko bat garatu beharko da idatziz, Nafarroako Parlamentuko legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatutako kasu bati edo kasu batzuei buruz.

Proba praktikoa bakoitza gutxienez ere 15 punturekin baloratuko da. Proba horien edukiak lotura izanen du deialdiko III. eranskinean ageri diren gaiekin.

Ariketa hori egiteko, izangaiek lege-testuen eta jurisprudentziaren bildumak, beraiek eramandakoak, erabili ahalko dituzte.

Ariketa praktikoko probak plika itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, proba bakoitza bukatzean, folioak gutun-azal handi batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak gutun-azal txiki batean jarriko dituzte, eta gutun-azal hori bestearekin batera aurkeztuko da. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatutakoan, epaimahaiak zenbaki bera jarriko du bi gutun-azalaren artean. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, jendaurrean irekiko da gutun-azal txikia, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

Plikak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, eta ekitaldi hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago iragarriko da Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean.

6.3.5. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak proba hori gairik gaitzeko izangaien zerrenda jarriko du ikusgai Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean; halaber, hurrengo proba zein tokitan, egunetan eta orduetan eginen den adieraziko du, gutxienez 48 ordu lehenagotik. Kalifikazio hori batuko zaio izangaiek lehiaketaldian ateratakoari, eta horrela emanen da oposizio-lehiaketako puntuazio osoa.

6.3.6. Deialdi bakarra eginen da proba bakoitzarako. Izangaiek aldean izan beharko dute nor-

tasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat. Azterketan azaltzen ez direnak edo haien nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.3.7. Oposizioko probak egitean, denbora- eta baliabide-egokitzapen posibleak eginen dira aitoruriko desgaitasunen bat izanda propio eskatzen dituztenentzat, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

7. oinarria. Probak gaintzen dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Hautaprosesua amaituta, epaimahaiak Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko du lorturiko puntuazioen hurrenkeran antolaturiko amai-kalifikazioa, lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioak batuz erdietsia.

Azken emaitzan berdinketarik izanez gero, ariketa praktikoan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Eta, berdinketak irauten badu, ariketa teorikoan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan. Berdinketak irauten badu, lehiaketaldian puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Eta horrela ere berdinketa mantentzen baldin bada, zozketa bidez ebatziko da.

7.2. Epaimahaiak guztizko puntuazio handiena lortu duten bi izangaien aldeko izendatze-proposamena igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, oposizio-lehiaketako aktekin eta gainerako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendapen-proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epearen barrenean, proposaturiko izangaiak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dizkiote Nafarroako Parlamentuari, guzti-guztiak jatorrizkoan eta fotokopian, konpultsatutako eta bueltatutako izateko:

a) Nortasun agiri nazionala edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokide bat.

b) Deialdiaren 2.1.c) oinarrian eskatzen den titulua, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

c) Lehiaketa-fasean alegaturiko merezimen- duen jatorrizkoa. Dokumentu horien faltsutasunak, edo aipatu dokumentuak aurretiaz aurkeztuekin bat ez etortzeak, ondorio gisa ekarriko du izenda-

pen-proposamena automatikoki indargabea izatea eta kasuko izangaia deialditik kanporatua izatea.

d) Txostena, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalak jaulkitakoa, frogatzen duena interesdunak ez duela eritasun edo akats fisikorik, lanpostuaren berezko eginkizunetan aritzea eragozten dionik. Ofizios aurkeztua izanen da, horretarako osasun-azterketa egin ondoren.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiak halaber aurkeztu beharko dute desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio- eta orientazio-talde eskudunek jaulkitakoa.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izateari eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izateari buruzko zinteko aitortpena.

f) Zin-egite edo hitz-ematea, Nafarroako foru araubidea errespetatzearena, Konstituzioari eta legeei men egitearena eta karguari dagozkion eginkizunak zintzoki betetzearena.

g) Nafarroako administrazio publikoren bateko langile finko diren izangaiak, gainera, ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, frogatzen duena bai izaera hori bai beraien lehenagoko administrazioeko espediente pertsonalean ageri diren gainerako inguruabar eta aurrekariak, postuan sartzeari, antzinasunari, mailari, egoera administratiboei eta abarri buruzkoak.

7.4. Behar adina justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, aipatu epearen barrenean arestiko agiriak aurkeztu ez dituzten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta haien egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela eta legokiekeen erantzukizuna ezertan galarazi gabe.

7.5. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hutsune hori beteko du 7.1 oinarriak aipatzen duen gaintzailezerrendan jarraian dagoen izangaiarekin, eta horrekiko prozedura izanen da aurreko apartatuek adierazten dutena.

8. oinarria. Izendapena.

8.1. Deialdi honetako 7.3 oinarrian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak funtzionario izendatuko du proposatutako izangaia. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendapena jakinarazten denetik hilabete-ko epean, izangaiak beren karguen behin betiko

jabetza hartu beharko dute, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aurrean.

8.3. Ulertuko da izangai batek, epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, oposizio-lehiaketaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, lanpostua deialdiko 7. oinarrian aipatzen den gainditutakoen zerrendan hurrengo dagoen izangaiarekin beteko da.

9. oinarria. Jarduketak argitaratzea.

Ezertan galarazi gabe argitaratze ofiziala Nafarroako Aldizkari Ofizialean izan beharrekoa duten tramiteak, proba-deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak egindako jarduketei buruzko informazioa, bai eta interesdunentzat lagungarria den beste edozein informazio orokor ere, Nafarroako Parlamentuaren www.parlamentodenavarra.es webgunean argitaratuko da.

10. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

10.1. Aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzea zilegi izanen dute izangaiek, berariaz eskatuz gero eta erreklamazio edo errekurtsorik jarri ez bada. Berreskuratze-eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, aurretik beste hiru hilabete igaroak direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik.

10.2. Aurreko apartatuan ezarritako epea bukatzen bada dokumentazioa berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, izangaia dokumentazio-berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da. Ondo-

rioz, horretarako eskubidea galduko du, eta dokumentazioa suntsitu egingen da.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztzen baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Halakoetan, agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

11. oinarria. Errekurtsuak.

11.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

11.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo kalifikazio-epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua aurkeztea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

I. ERANSKINA
Eskabide-eredua

1) Datu pertsonalak

Izen-abizenak: _____

Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten zenbakia: _____ (fotokopia doa erantsirik)

Jaioteguna: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Probintzia: _____ Posta-kodea: _____

Telefonoa(k): _____

Helbide elektronikoa: _____

2) Desgaitasun-froga (bidezkoa denean bakarrik):

 Desgaitasun bat duela, eskabidearekin batera frogatzen duena (legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia eransten da). Duen ezgaitasuna dela-eta, egokitzapena eskatu nahi duela (minusbaliotasunaren nondik-norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira).

3) Merezimendu-lehiaketa:

 Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua eransten da, II. eranskineko ereduaren arabera. Aurreko zerrendan sartzen diren merezimendu alegatuetako bakoitzaren frogagiria eransten da.

4) Halaber adierazten du:

– Ez duela karguan aritzea galarazten dion eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta ez duela xedapen indardunetan ezarritako ezintasunik.

– Ez dela diziplina-espeditente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita izan, eta ez dela zigortua izan eginkizun publikoetan jarduteko ezgaitzearekin edo etendurarekin.

– Badauzkala deialdian eskatzen diren tituluak, eta bertan parte hartzeko ezarrita dauden baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunean.

– Konpromisoa hartzen duela, izendatua izanez gero, deialdiaren 7. oinarrian aipatzen diren agiriak aurreikusten den epean aurkezteko, bai eta bere lanpostuaren jabetza hartzeko ere izendapena jakinarazten zaionetik hilabeteko epean.

ESKATZEN DU onartua izatea deialdi horretan, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak. Deialdia _____ datako _____ zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua da.

_____(e)n, 2022ko _____ren _____(e)(a)n.

(Sinadura)

OHARRA: Eskubidea Nafarroako Parlamentuaren Erregistroan aurkeztuz gero, horren kopia bat atxiki beharko da, zigitua izateko eta interesdunari itzultzeko, haren izen-ematearen frogagiri gisa.

Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europako Erregelamenduari (DPBE) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu, emandako datu pertsonalak direla-eta:

Arduraduna eta helburua: *Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu izaera pertsonaleko datuak, eta "Giza Baliabideak" tratamendu-sisteman sartuko ditu, zeinaren xedea baita Nafarroako Parlamentuko giza baliabideen erregistratze eta kudeaketarako beharrezkoak diren datuak lortzea. Datu horiek erabiliko dira langile-hautaketako eta lanpostu-betetzeetako prozesuetan, langileen prestakuntzan, bateraezintasunen gaineko kontrolean, lan-arriskuen prebentzioan, alta- eta baja-zereginetan, eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei, gizarte-aurreikuspeneko entitateei eta aseguru-enpresari eginiko komunikazioetan, bai eta kontrol prezentzialean ere.*

Legitimazioa: *Helburua oinarritzen da Nafarroako Parlamentuaren ahal publikoen egikaritzean eta legezko betebeharraren betetzean. Funtz juridikoa honako hau du:*

DPBEren 6.1.e) artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an egindako bilkuran onetsia. (19. NPAO, 1991ko martxoaren 26koa).

Eskubideak: *Orobat jakinarazten dizugu zure eskubidea dela Nafarroako Parlamentuari eskatzea zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea, bai eta datu horien tratamendua mugatzea eta ukatzea ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko dpd@parlamentodenavarra.es helbidean.*

Datu-gordetzea: *Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauek xedatzen dutenari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.*

II. ERANSKINA**Alegatutako merezimenduen zerrendatze-eredua**

_____ jaunak/andreak, _____ zenbakiko NANA duenak, deklaritzen du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko A mailako bi legelari postu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 6. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideei dagokienez, honako hauek direla baloraziorako aurkezten diren merezimenduk:

A) LANBIDE-ESPERIENTZIA:

		Administrazio Publikoa	Postua eta maila	Aldia
a.1)	Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean Nafarroako Parlamentuan emandako zerbitzuak			
a.2)	Lortu nahi den lanpostuaz bestelakoak diren Nafarroako Parlamentuko lanpostuetan emandako zerbitzuak			
a.3)	Administrazio publikoetan A mailako edo taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, lanpostu horietarako zuzenbideko lizentziadunaren edo gradudunaren titulua eskatu bada:			

b) BESTE MEREZIMENDU BATZUK:

b.1)	Nafarroako Parlamentuko legelari posturako oposizio edo oposizio-lehiaketa bat posturik lortu gabe gainditzea	Ebazpena / argitalpen ofiziala / ziurtagiri ofiziala

b.2)	Lortu nahi den postuaz bestelakoa den lanpostu baterako Nafarroako Parlamentuan gainditutako oposizioaren edo oposizio-lehiaketaren izena.	Ebazpena / argitalpen ofiziala / ziurtagiri ofiziala

b.3)	Deialdi honetan betekizun gisa exijitzen diren goi mailako ikasketez bestelako lizentzia edo graduko unibertsitate-titulu ofiziala edo deialdi honetan parte hartzeko ezarritako goi mailako ikasketei buruzko doktoretzako proba	Titulu ofiziala edo gordekina

b.4)	Unibertsitate Masterraren titulu ofiziala	Titulu ofiziala edo gordekina

b.5)	Euskararen ezagutza	Maila	Titulazio ofiziala

b.5)	Ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutzak	Maila	Titulazio ofiziala

[] Atxikita bidaltzen d(ir)a aurreko apartatuetan alegaturiko merezimenduetako bakoitzaren frogagiria(k)

_____ (e)n, 2022ko _____ ren _____ (e)(a)n.

(Sinadura)

III. eranskina Gai-zerrenda

1. multzoa

Zuzenbide konstituzionala, Europar Batasune-ko zuzenbidea eta hauteskunde-zuzenbidea

1. gaia.- 1978ko Espainiako Konstituzioa. Egitura eta ezaugarriak. Konstituzioaren balio gorenak eta printzipioak. Konstituzioaren erreforma.

2. gaia.- Konstituzioa eta iturrien sistema. Jurisprudentzia. Ohitura. Nazioarteko itunak eta iturrien sisteman betetzen duten tokia.

3. gaia.- Legea. Kontzeptua eta motak. Lege-erreserbaren printzipioa. Lege organikoak eta lege arruntak; lege-dekretuak eta legegintzako dekretuak. Autonomia-erkidegoen legeak.

4. gaia.- Lege-lerruneko iturriak I. Lege-dekretuak: izaera juridikoa eta mugak. Lege dekretuen kontrola.

5. gaia.- Lege-lerruneko iturriak II. Legegintzako dekretuak: izaera juridikoa eta motak. Legegintza eskuordetuaren mugak. Legegintzako dekretuen kontrol juridikozional eta parlamentarioa.

6. gaia.- Autonomia-estatutuak. Autonomia-erkidegoetako ordenamendu juridikoak. Epailleek autonomia-erkidegoetako ordenamendua aplikatzea. Estatuko ordenamenduaren autonomia-erkidegoetako ordenamenduen arteko harremanak.

7. gaia.- Espainiako Konstituzioko I. titulua. Gizabanakoaren duintasuna. Gizabanakoari loturiko eskubideak eta oinarrizko eskubideak. Konstituzioaren 10.2 artikulua interpretazio-irizpide berezia, oinarrizko eskubideak direla-eta. Oinarrizko eskubideen eraginkortasuna, bereziki, partikularren arteko harremanetan. Oinarrizko eskubideen mugak.

8. gaia.- Berdintasun printzipioa eta berdintasunerako eskubidea eta diskriminazioaren debekua. Bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea. Ideologia-, erlijio- eta kulturaskatasunerako eskubidea. Espainian dauden atzerritarren eskubideak eta askatasunak.

9. gaia.- Genero-diskriminazioaren debekua konstituzio-oinarriak. Nazio Batuen Erakundeak genero-diskriminazioaren aurka babesturiko testu eta tresnak, bereziki Emakumearen aurkako Bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa eta Emakumearen kontrako diskriminazioa desagerrarazteko Batzordea (CEDAW). Genero-diskriminazioaren debekua EBn. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko

Espainiako legeria. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeari buruzko aipamen laburra.

10. gaia.- Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Pribatutasunerako eskubideak: ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea, bizilekuaren bortxaezintasuna, komunikazioen sekretua eta datuen babesa. Zirkulatzeko eta bizilekua hartzeko askatasuna.

11. gaia.- Adierazpen- eta informazio-askatasuna. Biltzeko eskubidea. Elkartzeko eskubidea. Sindikatze eskubidea eta askatasun sindikala. Greba egiteko eskubidea. Arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea eta eskaera-eskubidea. Hezkuntzarako eta irakaskuntza-askatasunerako eskubidea.

12. gaia.- Parte-hartze politikorako oinarrizko eskubidea.

13. gaia.- Espainiako Konstituzioko 24. eta 25. artikuluetan aitortutako eskubideak. Benetako babes judizialerako eskubidearen aipamen berezia. Zigorren legezkotasunaren printzipioa eta Administrazio Publikoaren zehapen-ahalmena Konstituzioan.

14. gaia.- Herritarren eskubide eta betebeharrak: edukiaren azalpen laburra. Gizarte eta ekonomia arloko politikaren printzipio gidariak: edukiaren azalpen laburra.

15. gaia.- Oinarrizko eskubide eta askatasunen babesa eta bermea. Araugintzako bermeak. Erakunde-bermeak. Jurisdikzio-bermeak. Eskubide eta askatasunak etetea.

16. gaia.- Jurisdikzio konstituzionala Espainian. Konstituzio Auzitegia: osaera eta kideen estatutua. Antolaketa eta eginkizunak. Konstituzio Auzitegiaren epaiak eta boto partikularrak.

17. gaia.- Legeen konstituzionaltasun-kontrola: konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua eta konstituzio-kontrakotasuneko arazoa. Nazioarteko itunen konstituzionaltasunaren gaineko aurretiazko kontrola. Konstituzio-kontrakotasuneko aurretiazko errekurtsua autonomia-estatutuen edo haien aldaketen proiektuetan.

18. gaia.- Eskubideen babes judiziala Konstituzioan. Prozedura sumarioa eta lehentasunezkoa. Babes-errekurtsua. Loturiko egintzak. Legitimitasuna. Babes-errekurtsuaren epaia.

19. gaia.- Eskumen-gatazkak eta autonomia-erkidegoetako xedapen eta ebazpenak aurkartzeari. Organo konstituzionalen arteko eskumenen

gaineke gatazkak. Tokiko autonomia aldezteko gatazkak.

20. gaia.- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Nazio Batuen Erakundearen oinarritzko eskubideen arloko beste itun batzuk. Eskubideak bermatzeko mekanismoak Nazio Batuen Erakundearen: bereziki, Giza Eskubideen Batzordea. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena. Giza Eskubideen Europako Auzitegia: eraketa, eskumenak eta prozedura. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaien eraginkortasuna: bereziki, Botere Judizialaren Lege Organikoko 5.bis artikulua. Giza eskubideak bermatzeko bestelako itun eta mekanismoak Europako Kontseiluaren eremuan.

21. gaia.- Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa. Parlamentuzko monarkia, Estatuaren forma politikoa. Koroaren erakundea. Erregearen eginkizunak. Erregearen egintzak berrestea.

22. gaia.- Parlamentua: ganbera bakarreko eta bi ganberako sistemak. Gorte Nagusiak: osaera, egitura eta eginkizunak.

23. gaia.- Gobernua. Osaera, eginkizunak eta kideen estatutua. Zuzendaritza politikoa eginkizuna. Gobernuaren kontrol politikoa. Gobernua eta Administrazioa.

24. gaia.- Konstituzio ekonomikoa. Ahalmen finantzarioa. Estatuko aurrekontu orokorrak. Zerga-zuzenbidearen printzipio konstituzionalak.

25. gaia.- Autonomia-erkidegoz osatutako estatua. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko irizpide orokorrak. Estatuak autonomia-erkidegoen gainean egiten duen kontrola. Autonomia-erkidegoen erakunde antolaketa. Tokiko autonomia.

26. gaia.- Alderdi politikoak. Alderdi politikoa-ren kontzeptua. Eratzea. Estatuak. Antolaketa eta funtzionamendua. Finantzaketa. Alderdi politikoaren gaineko kontrola. Desegitea.

27. gaia.- Aniztasun sindikala. Sindikatuak. Aniztasun sozial eta ekonomikoaren beste aitoren modu batzuk Espainiako Konstituzioan.

28. gaia.- Botere judiziala. Epalea legearen mende egotea eta independentzia judiziala; mugiezintasuna. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: egitura eta funtzioak. Epaille eta magistratuen estatutua.

29. gaia.- Fiskaltza. Arartekoa. Kontuen Auzitegia.

30. gaia.- Europar Batasuneko Zuzenbidea: printzipio gidariak. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna: edukia, aplikazio esparrua

eta eraginkortasuna. Europar Batasuneko Zuzenbidearen iturriak. Europar Batasuneko Zuzenbidearen eta barne-zuzenbideen arteko harremanak: zuzeneko eraginaren printzipioa, lehentasunarena, ardura printzipioa, subsidiariotasunarena, baliokidetasunarena eta eraginkortasun printzipioa. Europar Batasunaren erakunde-antolamendua.

31. gaia.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegia: osaera eta eskumena. Epaille espainiarra eta Europar Batasuneko Zuzenbidea: Botere Judizialaren Lege Organikoko 4.bis artikulua. Arazo pre-judiziala. Justizia Auzitegiaren aurreko bestelako prozedurak.

32. gaia.- Parte-hartze politikoa: demokrazia ordezkatzailerak eta zuzeneko demokrazia.

33. gaia.- Erreferenduma eta legegintzako herri-ekimena.

34. gaia.- Sufragio aktiboko eskubidea. Hautesle-errola.

35. gaia.- Sufragio pasiboko eskubidea. Hautaezintasunak. Hauteskunde-zerrendak. Alderdi politikoen araubide juridikoa.

36. gaia.- Hauteskunde-sistemen osagaiak.

37. gaia.- Espainiako hauteskunde-sistemak.

38. gaia.- Hauteskundeetarako antolaketa. Hauteskunde administrazioa. Hauteskunde-prozesuaren antolaketan eta gauzatzean parte hartzen duten subjektuak.

39. gaia.- Hauteskunde-prozedura I. Deialdia. Hautagaitzen antolaketa. Hauteskunde kanpaina.

40. gaia.- Hauteskunde-prozedura II. Bozketa-ren nondik norakoa. Boto-kontaketa. Hautetsiak aldarrikatzea.

41. gaia.- Hauteskunde finantzaketa. Alderdi finantzaketa. Finantzaketaren kontrola.

42. gaia.- Hauteskunde prozeduraren amaiera. Hauteskunde-errekurtsoak. Hauteskundearen aurreko delitu eta arau-hausteak.

43. gaia.- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen 16/1986 Foru Legearen aipamena.

2. multzoa **Zuzenbide parlamentarioa**

1. gaia.- Zuzenbide parlamentarioaren kontzeptua eta iturriak. Parlamentuetako erregelamenduak. Izaera juridikoa. Parlamentuetako erre-

gelamenduen konstituzionaltasuna eta konstituzionaltasun-blokean txertatzea.

2. gaia.- Legebiltzarren prerrogatibak eta egin-tza parlamentarioen gaineko kontrola. Autonomia parlamentarioa Nafarroako Parlamentuan.

3. gaia.- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendua. Prestaketa eta erreforma. Nafarroako Parlamentuaren erregelamenduak. Nafarroako Parlamentuaren beste arau batzuk.

4. gaia.- Legegintzaldia Espainiako zuzenbidean. Ganberak eratzea. Zin egitea edo agintzea. Bilkuraldiak. Bilkura bereziak. Agindu parlamentarioa. Agindu parlamentarioaren iraungitzea. Ganberak desegitea. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

5. gaia.- Pribilegio parlamentarioak. Parlamentarien bortxaezintasuna, immunitatea eta forua. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

6. gaia.- Parlamentari izaera eskuratu, eten eta galtzea Espainiako zuzenbide parlamentarioan. Gai horien nondik norakoak Nafarroako Parlamentuan.

7. gaia.- Diputatuen eskubideak eta betebeharrak. Gai horren nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

8. gaia.- Atxiki gabeko diputatua. Gai horren nondik norakoak zuzenbide espainiarrean eta Nafarroako Parlamentuan.

9. gaia.- Talde parlamentarioen izaera juridikoa.

10. gaia.- Talde parlamentarioa, eskubide eta betebeharren titularra.

11. gaia.- Talde parlamentario mistoa. Foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Parlamentuan.

12. gaia.- Talde parlamentarioen finantzaketaren araubide juridikoa. Dirulaguntzak eta lokalak eta baliabide materialak uztea.

13. gaia.- Talde parlamentarioak Parlamentuaren antolamenduan eta funtzionamenduan. Gai horren nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

14. gaia.- Talde parlamentarioen eraketa eta desegitea. Gai horren nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

15. gaia.- Diputatuen Kongresuko eta Senatu-ko gobernu organoak: Lehendakaritza, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Diputazio Iraunkorra. Idazkaritza Nagusia.

16. gaia.- Diputatuen Kongresuko eta Senatu-ko organo funtzionalak: Osoko Bilkura, batzordeak eta ponentziak. Baterako bilkurak eta batzorde mistoak.

17. gaia.- Nafarroako Parlamentuko gobernu organoak: Lehendakaritza, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra. Idazkaritza Nagusia.

18. gaia.- Nafarroako Parlamentuko organo funtzionalak: Osoko Bilkura, batzordeak eta ponentziak.

19. gaia.- Ganberen funtzionamendu orokorra I: deialdia eta aztergaiak. Bilkuren jendaurrekotasuna. Eztabaida Hitza izatea. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan. Hizkuntza ofizialak Nafarroako Parlamentuan.

20. gaia.- Ganberen funtzionamendu orokorra II: quoruma. Bozketak. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

21. gaia.- Diziplina parlamentarioa.

22. gaia.- Eginkizun parlamentarioak.

23. gaia.- Legegintzako eginkizuna Gorte Nagusietan I: legegintza-ekimena. Legegintza-prozedura arrunta izapidetzea Diputatuen Kongresuan. Prozedura legegintza-eskumen osoa duten batzordeetan.

24. gaia.- Legegintzako eginkizuna Gorte Nagusietan II: izapidetzea Senatuan. Legeak berrestea eta aldarrikatzea.

25. gaia.- Legegintzako eginkizuna Nafarroako Parlamentuan: Foru lege motak. Foru lege-dekretuak, legegintzako foru dekretuak eta tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretuak. Nafarroako Parlamentuaren legegintza-ekimena.

26. gaia.- Nafarroako Parlamentuaren legegintzako prozedura arrunta. Lege proiektu eta proposamenak erretiratzea.

27. gaia.- Nafarroako Parlamentuaren legegintzako prozedura bereziak.

28. gaia.- Legegintza eskuordetua eta haren gaineko kontrola Nafarroako Parlamentuan. Gorte Nagusietan aurkezteko lege proposamenak. Foruaren Hobekuntzaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren erreforma. Estatuaren eskumenak eskualdatzea edo eskuordetzan ematea.

29. gaia.- Zuzendaritza politikoaren eginkizuna. Gobernu-ko lehendakariaren inbestidura. Mozioak. Kargudunen hautaketaren aipamen laburra. Gai

horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

30. gaia.- Kontrol eginkizuna. Konfiantza-arazoa eta zentsura-mozioa. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

31. gaia.- Kontrolerako berriazko tresnak. Galdera parlamentarioak. Interpelazioak. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

32. gaia.- Ikerketa-batzordeak. Agerraldi informatiboak. Gai horien nondik norakoak Gorte Nagusietan eta Nafarroako Parlamentuan.

33. gaia.- Informazio-tresnak. Izaera juridikoa. Informazio eskarien azterketa eta araubidea Nafarroako Parlamentuan.

34. gaia.- Gobernuaren komunikazioak. Programen eta planen azterketa. Gobernuak igorritako informazioak. Lankidetzeta-hitzaurreak eta kontrol finantzarioa Nafarroako Parlamentuan. Nazioaren egoerari buruzko eztabaida, autonomia-erkidegoen egoerari buruzkoa eta Foru Komunitatearen egoerari buruzkoa.

35. gaia.- Nafarroako Parlamentuaren beste eginkizun batzuk: Konstituzio Auzitegiaren aurreko prozedurak. Nafarroako Parlamentua eta Europar Batasuna. Foru Eraentza aldeztua. Harremanak Nafarroako Kontseiluarekin, Arartekoarekin eta Kontuen Ganberarekin.

36. gaia.- Transfugismoa: gai horien nondik norakoak Estatuan eta Nafarroako Parlamentuko araudia.

37. gaia.- Gardentasuna eta parte-hartzea: Nafarroako Parlamentuko araudia.

38. gaia.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Nafarroako Parlamentuko zerbitzuak.

39. gaia.- Nafarroako Parlamentuko ondare-kudeaketa eta kudeaketa ekonomikoa. Parlamentua eta teknologia berriak.

3. multzoa

Zuzenbide administratibo eta prozesala

Zuzenbide Administratiboa.

1. gaia.- Administrazio Publikoa Espainiako 1978ko Konstituzioan. Botere Exekutiboan betetzen duen tokia. Antolamenduko eta funtzionamenduko printzipio konstituzionalak. Administrazio Publikoa eta zuzenbidea. Legezketasun printzipioa. Araututako ahalmenak eta eskumeneko ahalmenak. Administrazio Publikoa eta jurisdikzioa: autotutoretzaren printzipioa.

2. gaia.- Administrazio Publikoaren erregelamendu-ahalmena. Erregelamendua. Kontzeptua eta motak. Legearen eta erregelamenduen arteko loturak. Erregelamendu-ahalmenaren mugak. Legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa juridikoa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen aipamena.

3. gaia.- Pertsona juridiko publikoak. Espainiako antolamendu juridikoko ente publikoen tipologia. Ente publikoen gaitasuna. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa: esparru objektiboa, subjektiboa eta jarduteko printzipio orokorrak.

4. gaia.- Administrazio-organoak. Kontzeptua, osagaiak eta motak. Antolamendua. Antolamendu-ahalmena. Eskumena. Administrazio publiko desberdinetako kide anitzeko organoak: funtzionamendua.

5. gaia.- Administrazioen arteko harremanen printzipio orokorrak. Lankidetzan aritzeko betebeharrak eta horretarako teknikak. Lankidetzako harremanak. Administrazio publikoen arteko harreman elektronikoak.

6. gaia.- Erlazio juridiko-administratiboa: kontzeptua, ezaugarriak eta osagaiak. Erlazio juridiko-administratiboak sortzea, aldatzea eta azkentzea. Egoera juridiko subjektiboak Zuzenbide Administratiboan. Administrazio-jarduera diskrezionala eta haren mugak. Diskrezionalitatea kontrolatzeko bideak. Kontzeptu juridiko zehaztugabeak.

7. gaia.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidari buruzkoa. Esparru objektiboa eta subjektiboa. Herritarra administratu gisa. Administrazio prozedurako interesdunak. Jarduteko gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdunen identifikazioa eta sinadura.

8. gaia.- Herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Administrazio publikoekin harreman elektronikoak izateko eskubidea eta betebeharrak. Prozeduretako hizkuntza. Pertsonen lankidetzeta eta agertzea. Interesatuek prozeduran aurkeztutako dokumentuak.

9. gaia.- Administrazio Publikoaren erregistroak eta dokumentuen artxiboa. Izapideen erantzukizuna. Administrazio publikoek dokumentuak jaulkitzea. Administrazio publikoek eginiko kopien baliozkotasuna eta eraginkortasuna.

10. gaia.- Denboraren zenbaketa. Baldintzak eta epeak. Preskripzioa eta iraungitzea.

11. gaia.- Ebatzi beharra. Ebazteko gehieneko epea etetea. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea. Administrazio-isiltasuna, interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan. Ebazpen adierazirik eza, administrazioaren kabuz hasitako prozeduretan.

12. gaia.- Administrazio-egintzak. Kontzeptua eta motak. Administrazio egintzen osagaiak eta betebeharrak.

13. gaia.- Administrazio egintzen eraginkortasuna. Efectuak. Jakinarazpena. Argitalpena.

14. gaia.- Administrazio prozedura erkidea: kontzeptua eta izaera. Prozeduraren bermeak. Abstentzioa eta errefusazioa.

15. gaia.- Administrazio prozedura erkideari hasiera ematea: Xedapen orokorrak. Motak.

16. gaia.- Administrazio prozedura erkidearen antolamendu eta instrukzioa.

17. gaia.- Prozedurari amaiera ematea. Itundutako amaiera. Ebazpena. Interesdunek atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea.

18. gaia.- Administrazio egintzen exekuzioa.

19. gaia.- Egintza administratiboaren baliogabetasunaren teoria: deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazioak bere kabuz berrikusetea. Kaltegarritzat jotzea. Egintzak errebokatzea eta hutsen zuzenketa.

20. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekurtsoa. Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea. Berrikuspeneko errekurtso berezia.

21. gaia.- Administrazio Publikoaren zehapen-ahalmena. Printzipio orokorrak. Zehapen-prozedura.

22. gaia.- Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizuna: ezaugarriak eta prozedura. Herri-administrazioetako agintari eta langileen erantzukizuna. Estatu legegilearen erantzukizuna. Justizia Administrazioaren egintzengatiko erantzukizuna. Kontratu publikoen exekuzioagatiko kalteetatik eratorritako erantzukizuna.

23. gaia.- Espainiarren eskubideen gaineko administrazio-baldintzak. Herritarren Segurtasunari buruzko Lege Organikoa: xedapen orokorrak. Dokumentazio eta identifikazio pertsonala. Eskubideen etendura eta salbuespen egoerak.

24. gaia.- Nahitaezko desjabetzea. Kontzeptua. Elementuak. Desjabetzeko prozedura. Partikularren bermeak.

25. gaia.- Datu pertsonalen babesa Europan eta Espainian. 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzekoa.

Zuzenbide prozesala.

26. gaia.- Prozesua: kontzeptua, izaera, oinarria eta motak. Konstituzioak jasotzen dituen printzipio prozesalak. Doakotasunaren, publikitatearen eta ahozkoatasunaren printzipioen aipamen berezia.

27. gaia.- Babes judizial efektiboaren eskubidea. Epaila eta magistratuen abstentzioa eta errefusazioa.

28. gaia.- Jarduketa judizialen baldintza orokorrak. Egintza judizialen deuseztasuna. Ebazpen judizialak. Alderdientzako komunikazio-egintzak.

29. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozesua: bilakaera historikoa Espainian. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera. Esparru objektiboa eta subjektiboa. Arazo prejudizialak. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoak: administrazioarekiko auzien epaitegien, justizia auzitegi nagusien salen eta Auzitegi Gorenen eskumena.

30. gaia.- Alderdiak: alderdien ahalmena, legitimazioa, ordezkaritza eta defentsa. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea; aurkatzeko moduko jarduera administratiboa. Alderdien uziak. Metatzea. Errekurtsoaren zenbatekoa.

31. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozedura: epeei buruzko xedapen orokorrak: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 128. artikulua. Kautelazko neurriak. Lehen auzialdiko edo auzialdi bakarreko atariko eginbideak: kaltegarritasun aitortzea eta aurretiatzko errekerimendua administrazio publikoen arteko auzietan. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea. Errekurtsoa iragartzea eta espedientearen errekurtsoa.

32. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozedura: Interesdunen epatzea eta pertsonatzea. Demanda eta erantzuna: betekizunak, edukia eta eraginak. Agiriak aurkeztea. Administrazio espedientearen osatzeko aurrekarien errekurtsoa. Ez onartzeko izapideak eta alde aurreko alegazioak.

33. gaia.- Frogaldiari buruzko xedapen orokorrak: frogaren xedea, frogaren proposatzea, onartzea, gauzatzea, aurreratzea eta ziurtatzea. Frogabideen tipologia. Alderdien eta lekukoaren galdeketa. Administrazio publikoari aplikatzekoak zaizkien berezitasunak.

34. gaia.- Agiri bidezko froga: agiri publikoak, agiri pribatuak eta bientzako xedapenak. Perituxostena, azterketa judiziala eta beste frogabide batzuk. Presuntzioak.

35. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozedura: ikustaldia eta ondorioak; gai berrien planteamendua. Epaia: edukia. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk. Legezkontrakotasun-arazoa. Kostuak.

36. gaia.- Prozedura laburtua: Administrazioak berak erabakiak alde aurretik etenda uzten ditueneko prozedura. Hauteskundeei buruzko auzia. Pertsonaren funtsezko eskubideak babesteko auzia. Alderdi politikoen azkentzeari buruzko adierazpen judiziala.

37. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozesuko errekurtsioak. Probidentzien eta autoen aurkako errekurtsioak. Apelazioko errekurtsioa. Zein erabakiren aurka den bidezkoa. Prozedura. Edukia eta epaiaren efektuak. Justizia-administrazio legelarien ebazpenen aurkako errekurtsioak. Berrikusteko errekurtsioa.

38. gaia.- Administrazioarekiko auzien prozesuko errekurtsioak: kasazioko errekurtsioa. Zein erabakiren aurka den bidezkoa eta errekurtsioaren zioak. Prozedura. Edukia eta epaiaren efektuak.

39. gaia.- Epaiak betearaztea administrazioarekiko auzien prozesuan: xedapen orokorrak. Betearazteko ezintasuna eta epai irmoek administrazioaren aurrean aitortutako eskubideak desjabetzea. Betearazteko modalitate berariazkoak. Epaien efektuen hedapena. Intzidentek eta egintza prozesalaren baliogabetasuna administrazio-prozesuan.

4. multzoa

Nafarroako zuzenbide publikoa, zuzenbide finantzario eta tributarioa, lanaren eta Gizarte Segurantzaren zuzenbidea eta lan arloko zuzenbide prozesala

Nafarroako Zuzenbide Publikoa.

1. gaia.- Nafarroako Foru Eraentza. Bilakaera (1512-1982). Nafarroa, erresuma izatetik foru komunitatea izatera. Foruen legeak, bereziki 1841eko Lege Itundua.

2. gaia.- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Legea egiteko prozesua. Izaera eta esanahia. Atariko titulua. Erreforma.

3. gaia.- Nafarroako Justizia Administrazioa. Antolamendua. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagu-

sia. Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin dituen harremanak.

4. gaia.- Nafarroako Kontuen Ganbera. Antolaketa eta eskumenak. Erresumako Kontuen Auzitegiarekin dituen harremanak.

5. gaia.- Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria. Elaborazioa eta erreformatzeko prozedura. Nafarroako Zuzenbide Zibilaren iturriak. Foru izaera zibila.

6. gaia.- Euskara Nafarroako Foru Komunitatean. Euskararen Foru Legea eta haren erregelamenduzko garapena.

7. gaia.- Nafarroako Gobernua. Osaera, izendapena, eraketa eta kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Laguntza-organoak. Erantzukizun politikoa, Parlamentuaren kontrola eta Nafarroako Parlamentua desegitea.

8. gaia.- Nafarroako Gobernuako lehendakaria. Hautapena, izendapena, ordezkapena, kargu-uztea eta aldaketa. Eskudantziak. Lehendakariordeak eta kontseilariak.

9. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa I: 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa: I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Foru Administrazio Publikoaren araubide orokorra.

10. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa II: III. titulua. Foru Administrazio Publikoaren eta Foru-sektore publiko instituzionalaren antolaketa.

11. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa III: V. titulua. Administrazioen arteko harremanak. VI. titulua. Administrazio jarduketaren arau orokorrak herritarrekiko harremanetan: pertsonen eskubideak eta Administrazioaren betebeharrak.

12. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaileak: izaera, motak, ezaugarriak eta eginkizunak. Nafarroako Kontseilua: osaera, antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua.

13. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa. Sorrera eta justifikazioa. Erakundearen izaera. Hautatzea, kargu-uztea eta ordezkatzea. Prerrogatibak eta bateraezintasunak. Eskumenak. Erakundearen funtzionamendua. Parlamentuarekin eta Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekin dituen harremanak.

14. gaia.- Nafarroaren eskumenak. Haien ordenamendua Foruaren Hobekuntzan: sailkapena eta printzipioak. Estatuko Administrazioarekiko harre-

manak. Hitzarmen eta lankidetzak akordioak autonomia-erkidegoekin. Transferentzien Batzarra.

15. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta erakunde autonomoen dirulaguntzei buruzko araubide orokorra.

16. gaia.- Funtzio publikoa. Printzipio konstituzionalak. Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan duen eskumen historikoa. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren Estatutua.

17. gaia.- Nafarroako toki entitateak. Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak toki administrazioari dagokionez. Toki entitateen antolaketa eta administrazioa. Ondasunak. Udal-zergak. Toki entitateen parte-hartzea Nafarroako zergetan.

18. gaia.- Nafarroako Toki Entitateen funtzionamendu araubidea. Herritarren informazioa eta parte-hartzea. Nafarroako toki entitateen jarduketan prozedura eta araubide juridikoa. Toki entitateen jarduketan inpugnazioa eta kontrola. Nafarroako Administrazio Auzitegia.

19. gaia.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea I: aplikazio eremua eta arau orokorrak. Botere adjudikaziodunak. Kontratistak. Kontratuen tipologia eta araubide juridikoa.

20. gaia.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea II: kontratu kudeaketarako printzipioak eta arauak. Publizitate arauak eta adjudikazio prozedurak.

21. gaia.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea III: kontratuen exekuzioa. Erreklamazioak eta lizitazioen kontrolerako beste neurri batzuk.

22. gaia.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea IV: Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuen arau berariazkoak.

23. gaia.- Nafarroako ondarea. Kontzeptua eta sailkapena. Ondarea kudeatzeko printzipioak. Eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Ondarea babestu eta defendatzea. Afektazioa, aldaketa demaniala eta atxikipena. Jabari publikoa. Jabari pribatua. Enpresen ondare publikoa.

Lan Zuzenbidea, Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea eta Lan arloko Zuzenbide Prozesala

24. gaia.- Lan arloko Zuzenbidea. Izaera eta ezaugarriak. Lan harremana arautzen duten oinarriko printzipioak.

25. gaia.- Lan Zuzenbidearen iturriak. Langileen Estatutua. Lan hitzarmen kolektiboak.

26. gaia.- Lan kontratua: kontzeptua, izaera eta motak. Lan kontratazioa administrazio publikoetan.

27. gaia.- Lan kontratua etetea eta amaitzea: arrazoiak. Kaleratzea.

28. gaia.- Gizarte Segurantza: arau orokorrak eta aplikazio esparrua. Entitate kudeatzaileak, zerbitzu komunak eta entitate laguntzaileak.

29. gaia.- Gizarte Segurantzaren araubide orokorra. aplikazio eremua. Afiliazioa eta kotizazioa. Ekintza babeslearen alderdi komunak. Prestazioen araubide orokorra.

30. gaia.- Lan arloko prozesua. Lan arloko prozesuaren printzipio informatzaileak. Arlo sozialeko jurisdikzioa. Lurralde-eskumenari, eskumen funtzionalari eta hierarkikoari buruzko arauak; eskumen-arazoak. Jurisdikzio- eta eskumen-gatazkak.

31. gaia.- Prozesuko alderdiak: gaitasuna, legitimazioa, ordezkaritza eta postulatuak. Errefusatzeko eta abstentzioak. Egintza prozesalak. Epaiaketa aurretik konpontzeko ahaleginak: prozesuz kanpoko adiskidetzeko-ahalegina eta aurretiazko bide administratiboa. Prestaketa-egintzak, frogak aurreratzea eta kautelazko neurriak. Babes judizialerako eta akziorako eskubidea: akzioen preskripzioa.

32. gaia.- Lan arloko prozesu arrunta. Demanda. Akzio-metaketa. Alderdien zitazioa. Justizia Administrazioaren legegintzaren aurreko kontziliazioa. Epaiaketa. Azken eginbideak. Epaiaketa eta haren behin-behineko exekuzioa.

33. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Kasazio-errekurtsoa. Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa. Erregutze-errekurtsoa. Probidentzia, auto, eginbide eta dekretuen aurkako errekurtsoak. Epaiak berrikustea eta akats judiziala. Jarraierak deuseztatzea.

Finantza eta Tributu Zuzenbidea.

34. gaia.- Hitzarmen ekonomikoaren araubidea. Hitzarmen Ekonomikoak: Historia eta izaera juridikoa. Nafarroako zerga autonomiaren printzipioak. Egun Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean dagoen hitzarmen ekonomikoa.

35. gaia.- Nafarroako Ogasun Publikoa. Araubide juridikoa. Eskubideak eta betebeharrak. Kontrola: kontu-hartzailetza eta kontrol finantzarioa. Erantzukizunen araubidea.

36. gaia.- Nafarroako aurrekontu orokorrak. Printzipio orokorrak. Edukia, prestatzea eta onepena. Kredituak eta haien aldaketak. Aurrekon-

tuen exekuzioa eta likidazioa. Nafarroako Parla-
mentuaren aurrekontu-kontrola eta kontrol finan-
tzarioa.

37. gaia.- Gastu publikoa: gaiari buruzko prin-
tzipio konstituzionalak. Diru-sarrera publikoak:
sailkapena. Zor publikoa: kontzeptua, motak eta
arabide juridikoa.

38. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko tribu-
tuen arloko ordenamendua. Printzipio orokorrak.
Tributu arauak: printzipio orokorrak eta aplika-
zioa. Tributuak: motak eta osagaiak (zergapeko
egitatea, tributudunak, zerga-oinarria eta tributu-
zorra).

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak proposamen bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoko zenbait lanpostu huts deitu ahal izateko, hain zuzen ere, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako salbuespenezko kasuetan daudenak. Proposamen hori egiten da Legebiltzarreko Mahaiak 2022ko maiatzaren 30eko erabakiaren bidez egindako eskaera betez, eta aipatu 20/2021 Foru Legean ezarritako epeei jarraikiz. Espedientea Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetzak egindako txostenez ere hornitu da.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoaren oinarriak onestea, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

2. Agintzea deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2022ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

Deialdi honen oinarriak honakoak dira:

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdi honek xede du lehiaketa-sisteman bidez betetzea, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2022ko maiatzaren 30eko Erabakian eta Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezartzen denari jarraituz, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionario-araubideko honako lanpostu hauek: komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

1.2. Lehiaketa aurrera eramanen da 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta horrek gerora izandako aldaketetan xedatuari jarraikiz; eta, osagarri modura, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta, hori garatu eta betearazteko, Sarrera-erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan xedatuarekin bat.

1.3. Deialdi hau dela medio izendaturik suertatzen diren izangaiek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, teknikarien, teknikari-ofizialen eta gelazainen kidegoetakoentzat ezarritako eginkizunak beteko dituzte eta horien

eskubide eta betebeharrak edukiko dituzte. Haien eginkizunak dira Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko Erregelamenduko 11 eta 21. artikuluek orokortasunez ezartzen dituztenak.

Lehiaketak barne hartzen dituen lanpostuak honako zerbitzu eta atalei atxikita daude:

– Komunikazio-teknikaria: Idazkaritza Nagusia, Prentsa Atala.

– Administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikaria: Zerbitzu Orokorrak.

– Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala: Zerbitzu Orokorrak.

– Gelazaina: Zerbitzu Orokorrak.

Lanpostu bakoitzerako, hautaprosesu bereizia eginen da, deialdi honetako oinarriari jarraituko zaiena.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuaren nominako eta plantillako funtzionarioaren izaera emanen die hautatuei, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.5. Lanpostuei A maila (komunikazio-teknikariarenari), B maila (administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariarenari), C maila (mantentze-lanetako teknikari-ofizialarenari) eta D maila (gelazainarenari) esleitzen zaizkie, bai eta maila horiei dagozkien ordainsariak eta Nafarroako Parlamentuaren plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak ere.

1.6. Izendatuak suertatzen diren pertsonak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuak izanen dira eta alta emanen zaie bertan, araubide horren estalduraren abaroan, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta horren osagarri diren xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun- eta gizarte-laguntzaren araubidean jadanik afiliatuta badaude, ezen kasu horretan aukera izanen dute araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaren afiliatzeko.

1.7. Lanaldia gauzatuko da Nafarroako Parlamentuko langileentzat orokortasunez ezarritako ordutegi eta txandetan.

2. oinarria. Izangaien betekizunak.

2.1. Merezimendu-lehiaketaren prozedura salbuespenezkoan onartuak izateko, izangaiek honako betekizun hauek beharko dituzte bete:

a) Espainiar nazionalitatea, Europar Batasuneko kide den beste estatu batekoa edo Europar

Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitakoak izanik langile-zirkulazio askea aurreikusten duten nazioarteko itunen aplikazio-esparruan dagoen estatu batekoa edukitzea.

Espainiarren eta Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako herritarren edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek ere parte hartzen ahalko dute, baldin eta ez badaude zuzenbidez bereizita. Orobat, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez daudenean, hogeita bat urte baino adin txikiagokoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Ondoko titulazioa edukitzea, edo eskuratzeko moduan egotea eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

– Komunikazio-teknikaria: unibertsitateko gradu- edo lizentziatu-titulu ofiziala kazetaritzan, informazio-zientzietan edo ikus-entzunezko komunikazioan, edo aurreko horietakoren baten baliokide gisa ofizialki deklaratu izandako titulu ofizial bat.

– Administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikaria: unibertsitateko diplomaturako titulu ofiziala, edo maila altuagoko unibertsitate-titulazio ofizial bat edukitzea (gradua, lizentzia, ingeniarietza edo arkitektura).

– Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala: goi mailako batxilergo, bigarren mailako lanbide heziketa, edo haien baliokide den titulu ofizial bat.

– Gelazaina: eskola-graduatuaren titulu ofiziala, lehen mailako lanbide heziketakoa edo baliokidea.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, horien baliozkotze-agiria eduki beharko da, edo, kasu bada, homologazioaren frogagiria.

d) Kasuan-kasuan bete beharrekoak diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

e) Ez egotea kasuko eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitzerik ez eta etendurarik ere, eta administrazio publiko baten zerbitzuetan bereizia ez izatea, ez eta diziplinazko kaleratzez iraitzia ere.

2.2. Aurreko baldintzak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, eta postuaren jabetza hartzen den arte.

2.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan zehazten den unean beharko dute frogatu aurreko betekizun horiek betetzen dituztela.

2.4. Lanpostu bakoitzean aldi baterako enplegua egonkortzeko deitzen den sarrera-hautaprozeturara ezin izanen dira aurkeztu Nafarroako Parlamentuan lanpostu berean langile finkoaren izaera daukaten enplegudunak.

3. oinarria. Eskabideak, dokumentazioa eta azterketa-eskubideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzendu beharko zaizkio, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo administrazio-araudi indardunaren arabera beste erregistro batzuetan.

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztuz gero, eskabidea eta haren kopia bat aurkeztu beharko dira. Kopia zigilatu eta interesdunari itzuliko zaio, izen-ematearen ziurtagiri gisa. Nafarroako Parlamentuaren Erregistroaren ordutegia honakoa da: astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 17:30era; eta ostiralean, 09:00etatik 14:30era. Abenduaren 27tik urtarrilaren 5era, biak barne, ordutegia honakoa izanen da: 9:00etatik 14:00etara.

3.2. Eskabidea posta-bulego batean aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azal ireki batekin eginen da, kasuko posta-langileak eskabideari data eta zigilua jar diezazkion, ziurtapena egin aurretik.

3.3. Eskabidea I. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izanen da, eta interesdunentzat eskuragarri egonen da Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean eta Nafarroako Parlamentuaren webguneko (www.parlamentodenavarra.es) "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia" izeneko atalean.

3.4. Parte-hartze eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituztela eskabide-aurkezpenerako zehaztutako epea amaitzen den egunean.

3.5. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten fotokopia aurkeztu beharko dute.

3.6. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte eta, zein den kasua, 2.1.a) oinarrian nazionalitateari eta ahaidetasunari buruz eskatzen diren baldintzena ere bai. Halaber aurkeztu beharko dute zinpeko edo hitzematezko aitortpena, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikorako sarbidea

eragozten dien inolako diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez izatearena.

Desgaitasun aitortua duten pertsonak horren berri eman beharko dute eskabidean, eta zuzenbidezko desgaitu-izaeraren frogagiria gehitu, horretarako atxikiz organo eskudunak jaulkitako dokumentuaren kopia bat, merezimendu-balorazioko baremoan jasotako zuzentze-faktorea aplikatu ahal izan dakien.

3.7. Halaber, eskabideari nahitaez atxikiko zaio alegaturiko merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskineko ereduaren arabera, merezimendu horien frogagirikin batera.

Izendapenerako proposatuak diren izangaiek merezimendu horien frogagiriaren jatorrizkoak edo kopia autentifikatuak aurkeztu beharko dituzte, 8.3 oinarrian adierazitako beste dokumentuekin batera. Dokumentu horien faltsutasunak, edo aipatu dokumentuak bat ez etortzeak aurretiaz aurkeztuak eta lehiaketa-fasean baloratuak izan direnekin, ondorio gisa ekarriko du haien aldeko izendapen-proposamenak automatikoki indarra galtzea eta kasuko izangaia deialditik kanporatua izatea.

4. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

5. oinarria. Izangai-onarpena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Izangai baztertutik ez badago, zilegi izanen da zuzenean onestea behin betiko zerrenda. Halaber argitaratuko da Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunean, "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia" izeneko atalean.

5.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrerako hamar egun balioduneko epean, interesdunek zilegi izanen dute egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztea zerrenda horren aurka eta haien egindako balizko akatsak zuzentzea.

5.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzirik, Nafarroako Parlamentuko lehen-

dakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, zeina argitaratuko baita Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta www.parlamentodenavarra.es webgunearen “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2022ko ekitaldia” atalean.

6. oinarria. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna.

6.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Inmaculada Jurío Macaya andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakarioa.

Ordezkoa: Yolanda Ibáñez Pérez andrea, Nafarroako Parlamentuko bigarren lehendakarioa.

Epaimahaikidea: Sergio Zozaya Garralda jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Laura Vidán Astiz andrea, Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Asun Marzal Parra andrea, Nafarroako Parlamentuko Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemako eta Teknologiako Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatu beharrekoa.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatu beharrekoa.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea, Kontuen Ganberako legelaria.

6.2. Baldin eta, abstentziorako eta errefuserako arrazoi zuzenbidezkoak aplikatuz, epaimahaiaren osaera aldatuko balitz, aldaketa hori publikoki jakinaraziko litzateke izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda jendaurrean jarztearekin batera.

6.3. Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak proposatutako ordezkarien hautaketa eginen da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

6.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, eta jarduterik ere ez du izanen, gutxienez bere kideen gehiengo osoa bertaratu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliodunak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertaratu egon beharko dute.

6.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeaz eta aplikatzeaz sor daitezkeen ebazkizun guztiak.

6.6. Epaimahaiko kideak behartuta egonen dira esku hartzetik abstenitu eta organo dei-egileari horren berri ematera, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio-kausetakoren bat beraiei aplikatzekoa bada. Halaber, izangaiek zilegi dute aipatu kasetakoren bat aplikatzekoa zaien epaimahaikideak errekusatzea.

7. oinarria. Lehiaketaren nondik norakoa.

7.1. Jarduna lehiaketa-fase bakar baten bidez gauzatuko da. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, epaimahaiak bilera bat eginen du, izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratzeko.

7.2. Izangai bakoitzaren guztizko puntuazioa honako atal hauetatik lortutako puntuak batuz aterako da:

a) Lanbide-esperientzia: deialdi honen argitalpen-datara arte Nafarroako Parlamentuan eta beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak 60 puntura bitartean baloratuko dira, puntuazio honen arabera:

a.1) Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean Nafarroako Parlamentuan emandako zerbitzuak: 3 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.2) Lortu nahi den lanpostuaz bestelakoak diren Nafarroako Parlamentuko lanpostuetan emandako zerbitzuak: 1,5 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.3) Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak: 0,75 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

Urte-kopurua ez baldin bada kopuru oso bat, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagoen puntuazioa esleituko da.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, horren arabera zatia deskontatuko da.

Ez dira baloratuko aldi berean emandako zerbitzuak, salbu eta lanaldi partzialean emandakoak badira.

Izangaiak prestakuntzarako zerbitzu berezieta-ko egoeran edo jarduneko egoera berezian emandako aldiak zenbatuko dira benetan jardundako lanpostuan emandako zerbitzu gisa.

Izangaia zerbitzu berezietako egoeran beste arrazoi batzuegatik egon bada, edo eszedentzia berezian egon bada, edo burutza batean, horietan igarotako denbora zenbatuko da egoera horietara iritsi zen unean zeukan lanpostuan emandako zerbitzu gisa.

Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Kasu bakoitzean, haietatik handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk (gehienez ere, 40 puntu):

b.1) Lortu nahi den Nafarroako Parlamentuko postuaren funtzionario-araubideko lanpostu bere-rako oposizio edo oposizio-lehiaketa bat posturik lortu gabe gainditzeagatik: 15 puntu, gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Lortu nahi den postuaz bestelakoa den Nafarroako Parlamentuko funtzionario-araubideko lanpostu baterako oposizio edo oposizio-lehiaketa bat gainditzeagatik: 10 puntu, gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.3) Goi-mailako batxilergoko edo lanbide-heziketako titulazio akademiko ofizial, unibertsitate-diplomatura edo gradu, lizentzia, ingeniari-tza edo arkitekturako unibertsitate-titulazio bakoitzeko, maila berekoa edo altuagokoa baina lortu nahi den posturako betekizun gisa exijitzen den horretaz bestelako mailakoa: 10 puntu.

b.4) Euskara jakitea: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukitzeagatik 7 puntu emanen dira. Horrelako titulu edo ziurtagiririk eduki ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiria edukitzea gehieneko puntuazioaren 1/5ekin baloratuko da; A2 mailaren baliokidea edukitzea, 2/5ekin; B1 mailaren baliokidea edukitzea, 3/5ekin; eta B2 maila osoa edukitzea, 4/5ekin. Erdietsitako maila gorenaren titulua bakarrik baloratuko da.

b.5) Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea, Europar Batasuneko lan-hizkuntzak diren aldetik: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea den jakite-maila frogatzen duen titulu edo ziurtagiri bat edukitzeagatik 5 puntu emanen dira. Horrelako titulu edo ziurtagiririk eduki ezean, Hizkuntzetarako

Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1 mailaren baliokidea den titulu edo ziurtagiria edukitzea gehieneko puntuazioaren 1/5ekin baloratuko da; A2 mailaren baliokidea edukitzea, 2/5ekin; B1 mailaren baliokidea edukitzea, 3/5ekin; eta B2 maila osoa edukitzea, 4/5ekin. Hizkuntza bakoitzeko, erdietsitako maila gorenaren titulua bakarrik baloratuko da.

Behin merezimendu-balorazioa aurreko a) eta b) apartatuek ezarritakoari jarraikiz eginda, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua frogatzen duten pertsonen lorturiko puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio guztira, zuzenketa-faktore gisa.

7.3. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozedurako parte-hartzaileen puntuazioan suertatzen diren berdinketak ebatziko dira baremoko a.1) apartatuan ("lanbide-esperientzia") puntuaziorik altuena lortu duen pertsonaren alde; eta horrela ere berdinketak bere horretan baldin badirau, ebatz-irizpide izanen da gainerako a.2), a.3), b.1), b.2), b.3), b.4) eta b.5) azpiapartatuetako bakoitzean lorturiko puntuaziorik altuena, horiek zerrendatu diren hurrenkeran.

Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak egingen duen berariazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinketan dauden pertsonetako bakoitzari, abizenen alfabeto-hurrenkeran ordenatuta daudelarik, zenbaki bat esleituko zaio, eta ondoren zozketa bat egingen da, zeinean zenbaki bat aterako baita, eta horixe izanen da hautaturiko pertsonarena.

7.4. Izangaiak, beren eskabidearekin batera, alegaturiko merezimenduen zerrenda aurkeztu beharko dute, II. eranskineko ereduaren arabera. Epaimahaiak baloratu ahal izan ditzan, nahitaezkoa izanen da dokumentu horri gehitzea merezimendu bakoitzari buruzko frogagiri hauek:

a) Lanbide-esperientzia: administrazio publikoetan emandako zerbitzuak kasuko administrazio publikoko organo arduradunak jaulkitako ziurtagirien bitartez frogatu beharko dira, non xeheki adierazi beharko baitira emandako zerbitzuak, berariaz jasota lanpostuak bertako plantilla organikoaren arabera duen izena, mailaketa, zein zentro edo unitatetan emandako zerbitzualdia den, zerbitzualdi bakoitzaren hasiera- eta amaiera-egunak, bai eta pertinetza den beste edozein datu ere.

b) Bestelako merezimenduak: izangaiak oposizioa edo lehiaketa-oposizioa gainditu izana frogatuko da horren berri ematen duten administrazio-ebazpenaren, argitalpen ofizialaren edo organo

eskudunak jaulkitako ziurtagiri ofizialaren fotokopia bidez frogatuko da. Titulazioa frogatuko da horretarako aurkeztuz titulu ofizialaren fotokopia, edo eskabide-aurkezpenaren epea bukatzen den egunean hori lortzeko eskubideak ordainduta egoteari buruzko gordekinarena. Hizkuntzen jakitea frogatuko da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabeko titulu edo ziurtagiria aurkeztuz; hots, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendaturik daudenetako bat, edo ofizialki baliokidetzat aitorturiko titulu bat.

Merezimenduen balorazioari dagokionez, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ez egun horren ondoren lortutakoak.

Agiriek baremoaren aplikaziorako beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute. Ez da kontuan hartuko frogatu gabeko merezimendurik, ez eta baremoan jasota ez dagoenik ere. Epaimahaiak zilegi izanen du argibideak eta datu osagarriak edozein unetan eskatzea izangaiek alegatutako merezimenduei buruz.

Epaimahaiak Izangai bakoitzari esleitzen dizkion merezimenduak arrazoituz baloratuko ditu, baremoko atal bakoitzari jarraikiz, eta ezin izanen du ezein kasutan aintzat hartu alegatu ez den edo agiri bidez frogatu ez den merezimendurik. Era berean, ez du zilegi izanen atal bakoitzagatik puntuazio handiagorik ematea baremoan aipatzen dena baino.

Epaimahaiak zilegi izanen du izangaiek alegatu eta frogatutako merezimenduen gaineko azalpenak eta datu osagarriak eskatzea.

Aurkezturiko merezimenduen frogagiriak aztertzetik ondorioztatuko balitz izangaietakoren batek ez daukala halako merezimendurik, deskontatu egingen da aipatu merezimenduei emandako puntuazioa, ezertan galarazi gabe hari faltsutasunagatik erator lekizkiokeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

7.5. Lehiaketa-fasea amaituta, epaimahaiak izangai bakoitzaren merezimenduen balorazioaren emaitza jasotzen duen zerrenda argitaratuko du Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean, izangaien balizko erreklamazioei begira, bost egun baliodunez.

Erreklamaziorik egonez gero, epaimahaiak ebatziko ditu, horren ondorioz prozedura eten gabe.

8. oinarria. Izendapen-proposamena eta agiri-aurkezpena.

8.1. Hautaprosesua amaituta, epaimahaiak Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko du lorturiko puntuazioen hurrenkeran antolaturiko amai-kalifikazioa, apartatu desberdinetako puntuazioak batuz erdietsia.

8.2. Deialdiaren xede den postu bakoitzerako, epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio guztizko puntuazio handiena lortu duen izangaiaren aldeko izendatze-proposamena, lehiaketako aktekin eta gainerako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendapen-proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epearen barrenean, proposaturiko izangaiek ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dizkiote Nafarroako Parlamentuari, guzti-guztiak jatorrizkoan eta fotokopian, konpultsatutako eta bueltatutako izateko:

a) Nortasun agiri nazionala edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokide bat.

b) Deialdiaren 2.1.c) oinarrian eskatzen den titulua, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

c) Lehiaketa-fasean alegaturiko merezimenduen jatorrizkoa. Dokumentu horien faltsutasunak, edo aipatu dokumentuak aurretiaz aurkeztuekin bat ez etortzeak, ondorio gisa ekarriko du izendapen-proposamena automatikoki indargabea izatea eta kasuko izangaia deialditik kanporatua izatea.

d) Txostena, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalak jaulkitakoa, frogatzen duena interesdunak ez duela eritasun edo akats fisikorik, lanpostuaren berezko eginkizunetan aritzea eragozten dionik. Ofizios aurkeztua izanen da, horretarako osasun-azterketa egin ondoren.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek halaber aurkeztu beharko dute desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio- eta orientazio-talde eskudunek jaulkitakoa.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izateari eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izateari buruzko zinpeko aitortpena.

f) Zin-egite edo hitz-ematea, Nafarroako foru araubidea errespetatzearena, Konstituzioari eta

legeei men egitearena eta karguari dagozkion eginkizunak zintzoki betetzearena.

g) Nafarroako administrazio publikoren bateko langile finko diren izangaiek, gainera, ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, frogatzen duena bai izaera hori bai beraien lehenagoko administrazioako espediente pertsonalean ageri diren gainerako inguruar bar eta aurrekariak, postuan sartzeari, antzinasunari, mailari, egoera administratiboei eta abarri buruzkoak.

8.4. Behar adina justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, aipatu epearen barrenean arestiko agiriak aurkezten ez dituzten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta haien egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela eta legokiekeen erantzukizuna ezertan galarazi gabe.

8.5. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hutsune hori beteko du 8.1 apartatuak aipatzen duen gainditzaille-zerrendan jarraian dagoen izangaiarekin, eta horrekiko prozedura izanen da aurreko apartatuek adierazten dutena.

9. oinarria. Izendapena.

9.1. Deialdi honen 8.3 apartatuan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu direnean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak funtzionario izendatuko ditu proposatutako izangaiek. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Izendapena jakinarazten denetik hilabeteko epean, izangaiek beren karguaren behin betiko jabetza hartu beharko dute, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aurrean.

9.3. Ulertuko da epe horretan lanpostuaz jabetzen ez den izangaiek lehiaketatik erortzen diren eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, lanpostua deialdi honetako 8. oinarrian aipatzen den gainditzaille-zerrendan hurrengo tokian dagoen izangaiarekin beteko da.

10. oinarria. Jarduketak argitaratzea.

Ezertan galarazi gabe argitaratze ofiziala Nafarroako Aldizkari Ofizialean izan beharrekoa duten

tramiteak, proba-deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak egindako jarduketei buruzko informazioa, bai eta interesdunentzat lagungarria den beste edozein informazio orokor ere, Nafarroako Parlamentuaren www.parlamentodenavarra.es webgunean argitaratuko da.

11. oinarria. Aurkeztutako dokumentazioa.

11.1. Aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzea zilegi izanen dute izangaiek, berriaz eskatuz gero eta erreklamazio edo errekurtsorik jarri ez bada. Berreskuratze-eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, aurretik beste hiru hilabete igaroak direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik.

11.2. Aurreko apartatuan ezarritako epea bukatzen bada dokumentazioa berreskuratze eskararik egin gabe, izangaiek dokumentazio-berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da. Ondorioz, horretarako eskubidea galduko du, eta dokumentazioa suntsitu egingen da.

12. oinarria. Errekurtsoak.

12.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunean kontaktzen hasitako hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunean kontaktzen hasita.

12.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak nahiz epaimahaiak deialdi honen aplikazioan erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua aurkeztea Parlamentuko Mahaiari, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunean kontaktzen hasitako hilabeteko epean.

I. ERANSKINA
Eskabide-eredua

1) Datu pertsonalak

Izen-abizenak: _____
Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten zenbakia: _____ (fotokopia doa erantsirik)
Jaioteguna: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Probintzia: _____ Código Postal: _____
Telefonoa(k): _____
Helbide elektronikoa: _____

2) Lortu nahi den postua:

- Komunikazio-teknikaria (A maila)
 Administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikaria (B maila)
 Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala (C maila)
 Gelazaina (D maila)

3) Desgaitasun-froga (bidezkoa denean bakarrik):

- Desgaitasun bat duela, eskabidearekin batera frogatzen duena (legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia eranstean da).

4) Merezimendu-lehiaketa:

- Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua eranstean da, II. eranskineko ereduaren arabera.
 Aurreko zerrendan sartzen diren merezimendu alegatuetako bakoitzaren frogagiria eranstean da.

5) Halaber adierazten du:

- Ez duela karguan aritzea galarazten dion eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta ez duela xedapen indardunetan ezarritako ezintasunik.
- Ez dela diziplina-espedita bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, eta ez dela zigortua izan eginkizun publikoetan jarduteko ezgaitzearekin edo etendurarekin.
- Badauzkala deialdian eskatzen diren tituluak, eta bertan parte hartzeko ezarrita dauden baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunean.
- Konpromisoa hartzen duela, izendatua izanez gero, deialdiaren 8. oinarrian aipatzen diren agiriak aurreikusten den epean aurkezteko, bai eta bere lanpostuaren jabetza hartzeko ere izendapena jakinarazten zaionetik hilabeteko epean.

ESKATZEN DU onartua izatea deialdi horretan, zeinaren bidez beteko baita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko lanpostu huts bat, funtzionario-araubidekoa eta ____ mailakoa. Deialdia _____ datako __ zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua da.

_____ (e)n, 2022ko _____ ren _____ (e)(a)n.

(Sinadura)

OHARRA: Eskabidea Nafarroako Parlamentuaren Erregistroan aurkeztuz gero, horren kopia bat atxiki beharko da, zigilatua izateko eta interesdunari itzultzeko, haren izen-ematearen frogagiri gisa.

Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europako Erregelamenduari (DPBE) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu, emandako datu pertsonalak direla-eta:

Arduraduna eta helburua: *Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu izaera pertsonaleko datuak, eta "Giza Baliabideak" tratamendu-sisteman sartuko ditu, zeinaren xedea baita Nafarroako Parlamentuko giza baliabideen erregistratze eta kudeaketarako beharrezkoak diren datuak lortzea. Datu horiek erabiliko dira langile-hautaketako eta lanpostu-betetzeetako prozesuetan, langileen prestakuntzan, bateraezintasunen gaineko kontrolean, lan-arriskuen prebentzioan, alta- eta baja-zereginetan, eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei, gizarte-aurreikuspeneko entitateei eta aseguru-enpresari eginiko komunikazioetan, bai eta kontrol presentzian ere.*

Legitimazioa: *Helburua oinarritzen da Nafarroako Parlamentuaren ahal publikoen egikaritzean eta legezko betebeharraren betetzean. Funts juridikoa honako hau du:*

DPBEren 6.1.e) artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an egindako bilkuran onetsia. (19. NPAO, 1991ko martxoaren 26koa).

Eskubideak: *Orobat jakinarazten dizugu zure eskubidea dela Nafarroako Parlamentuari eskatzea zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea, bai eta datu horien tratamendua mugatzea eta ukatzea ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko dpd@parlamentodenavarra.es helbidean.*

Datu-gordetzea: *Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauek xedatzen dutenari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.*

II. ERANSKINA

Alegatutako merezimenduen zerrendatze-eredua

_____ jaunak/andreak, _____ zenbakiko NANA duenak, deklaratzeko du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko _____ mailako _____ postu bat lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdiko 7. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideei dagokienez, honako hauek direla baloraziorako aurkezten diren merezimenduak:

A) LANBIDE-ESPERIENTZIA:

		Administrazio Publikoa	Postua eta maila	Aldia
a.1)	Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean Nafarroako Parlamentuan emandako zerbitzuak			
a.2)	Lortu nahi den lanpostuaz bestelakoak diren Nafarroako Parlamentuko lanpostuetan emandako zerbitzuak			
a.3)	a.3) Lortu nahi den postuari dagokion lanpostu berean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak:			

b) BESTE MEREZIMENDU BATZUK:

b.1)	Lortu nahi den postuaren lanpostu bererako Nafarroako Parlamentuan gauditutako oposizioaren edo oposizio-lehiaketaren izena.	Ebazpena / argitalpen ofiziala / ziurtagiri ofiziala

b.2)	Lortu nahi den postuaz bestelakoa den lanpostu baterako Nafarroako Parlamentuan gauditutako oposizioaren edo oposizio-lehiaketaren izena.	Ebazpena / argitalpen ofiziala / ziurtagiri ofiziala

b.3)	Goi-mailako batxilergoko edo lanbide-heziketako titulazio akademiko ofiziala, unibertsitate-diplomatura edo gradu, lizentzia, ingeniaritza edo arkitekturako unibertsitate-titulazioak, maila berekoak edo altuagokoak baina lortu nahi den posturako betekizun gisa exijitzen den horretaz bestelako mailakoak:	Titulu ofiziala edo gordekina

b.4)	Euskararen ezagutza	Maila	Titulazio ofiziala

b.5)	Ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutzak	Maila	Titulazio ofiziala

[] Atxikita bidaltzen d(ir)a aurreko apartatuetan alegaturiko merezimenduetako bakoitzaren frogagiria(k)

_____ (e)n, 2022ko _____ ren _____ (e)(a)n.

(Sinadura)

Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2022ko abenduaren 7koa, non eskatzen baitu goizeko lanaldia ezartzea 2022ko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, eta 2023ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean.

Kontuan izanik aipatu lan-asteetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

1. Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, lanaldia goizekoa izanen da 2022ko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, eta 2023ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, betiere zerbitzuen beharrezanek horretarako bidea ematen badute.

2. Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia aldatzea; halatan, 2022ko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, eta 2023ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias